

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

603/2020 Foru Agindua, urriaren 22koa, zeinaren bidez onesten baita Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarra osatzen duten funtzionarioen berritzea

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 24/2017 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarraren osaera eta barne funtzionamendua. Arbitraje Batzar hori garraioan esku hartzen duten aldeak babestu eta defendatzeko tresna bat da, eta uztaillaren 30eko 16/1987 Legeak (Lurreko Garraioak Antolatzea) 37. eta 38. artikuluetan ezarritako funtzioak betetzeko. Arabako Foru Administrazioaren eskumenaren pean dago Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarra, 1950eko martxoaren 9an estatuko administrazioarekin sinatu ziren lurreko garraioari buruzko hitzarmenen arabera, zeintzuk indarrean daudela aitortu baitzuen uztaillaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarriak.

Oro har, Arbitraje Batzarrari dagokio lurreko garraioaren arloko kontratuak betetzearen inguruan sortzen diren merkataritzazko eztabaidak ebaztea, noiz ere, elkarrekiko adostasunez, Arbitraje Batzarrari aurkezten zaizkion haietaz ardura dadin, eta, orobat, garraio enpresek eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarrien arloko enpresek egindako kontratuak direla-eta sortzen diren eztabaidak.

Haren osakerari dagokionez, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen araudiaren 8. artikuluan dio Garraioaren Arbitraje Batzarra lehendakariak eta gutxienez bi batzarkidek eta gehienez lauk osatuko dutela. Ildo horretan, Foru Gobernu Kontseiluaren 24/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, batzarburu batek eta hiru batzarkidek osatuko dute Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarra, eta "horiek guztiak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatuak izendatuko ditu foru agindu bidez", era honetan:

– Batzarburua Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko funtzionario bat izango da, Zuzenbideko lizentziatura edo gradua duena. Hala ere, gaur egun aipamen hori Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuaz egindakotzat hartu behar da, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez onesten baita Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala, ezarritakoaren arabera.

– Batzarkide batek, auzi motaren arabera, erabiltzaileak edo enpresa kargatzaileak ordezkatzen ditu. Haiek, hurrenez hurren, bidaiari edo salgai garraioei buruzko erreklamazioetan dihardute. Lehenengo kasuan, izendapena kontsumitzaile eta erabiltzaileen proposamenez egiten da; bigarrenetan, berriz, kargatzaileak ordezkatzen dituzten elkarteek proposatuko dute, edo Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak.

– Beste batzarkide batek garraio enpresak edo jarduera lagungarri eta osagarrien enpresak ordezkatzen ditu. Horretarako, gutxienez bidaiari garraio enpresen ordezkarik bat eta salgai garraio enpresen beste ordezkarik bat izan behar dira, auzi motaren arabera, eta gutxienez burdinbide enpresen ordezkarik bat.

– Batzarkide-idazkaria Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko (gaur egun, aipatutako 47/2019 Foru Dekretuaren arabera, Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuko) funtzionarioen artean izendatuko da eta Zuzenbideko lizentziatura edo gradua izan behar du.

Halaber, Arbitraje Batzarreko kide titularren ordezkoak ere izendatu daitezke.

Azken hilabete hauetan Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuan izandako aldaketen ondorioz, beharrezkoa da arbitraje batzarra osatzen duten funtzionarioen izendapenak berritzea eta eguneratzea.

Izendapen berriek behartzen dute ebazpen hau argitara ematera, ALHAOn txertatuz, daitetzkeen abstentzio eta errekusazioak direla eta.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 24/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Garraioaren Arbitraje Batzarra osatzen duten funtzionarioen berritzea onestea, ondoren adierazten den moduan:

– Carlos Fernández de Betoño Hernández, batzarburu titularra eta bigarren batzarkidea-ordezko idazkaria.

– Marta Virginia Ruiz Jiménez de Vicuña, ordezkoko lehenengo batzarburua eta batzarkidea-ordezko idazkaria.

– Begoña Díaz Aisa, ordezkoko bigarren batzarburua eta lehenengo batzarkidea-ordezko idazkaria.

Bigarrena. Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Foru Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 22a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren foru diputatua

MARÍA BLANCA DE LA PEÑA BERNAL

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria

PATRICIA PÉREZ AGUIRRE